

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

OSASUN SAILA

1043

IRAGARKIA, Abanto-Muskizko Farmazia-Eskualdean (Bizkaia) farmazia-bulego bat eskualdatzeko proposamen bat dagoela jakinarazteko dena.

Farmaziak eskualdatzeko jardunbidea finkatzen duen martxoaren 16ko 166/1999 Dekretuaren 4. artikulua xedatutakoa betez, Abanto-Muskizko farmazia-eskualdean (Bizkaia) dagoen farmazia baten % 100a eskualdatzeko proposamen bat dagoela jakinarazten da.

Eskuratzeko interesa duten botikariek leku hauetan lor ditzakete espedienteko argibideak, farmaziari, prezioari eta eskualdatzeko gainerako xehetasunei buruzkoak:

- Osasun Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritza: Olagibel kalea, 38, Vitoria-Gasteiz.
- Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza: Antso Jakitunaren kalea, 35, Donostia.
- Osasun Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza: Errekalde zumarkalea, 39, Bilbao.

Farmazia-bulegoa eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuta.

Farmazia eskuratzeko eskabideei 274,81 euroko tasa ezarriko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 27a.

Farmaziako zuzendaria,
JON IÑAKI BETOLAZA SAN MIGUEL.